

## **Gazteak biolentziaren aurrean: bizikidetzaz sustatuz formazioan izena eman!**

Zer uste dugu biolentzia politikoaren inguruan? Zer indarkeria mota daude eta nola identifika ditzaket? Zer aurreiritziekin bizi gara eta zer eragina dute gure harremanetan? Nola eraikitzen ditu norberak “etsai” eta “lagun” kontzeptuak? Nola justifikatzen ditugu gure kontraesanak eta besteenak? Eta, batez ere, nola kudeatu ditzakegu sortzen diren desadostasunak eta gatazkak? Aldi berean egonetik elkarrekin bizitzera pasa gaitezke?

EGK-k **Gazteak biolentziaren aurrean: bizikidetzaz sustatuz** saio formatiboa prestatu du Bakeola eta Gernika Gogoratuz-en eskutik. Honekin hausnarketa dinamika bat sustatu nahi da Euskadiko errealitate ezberdineko gazteen artean, galdera hauek eta beste batzuek aditzera ematen digutena elkarbanatu nahi da.

### **Helburuak:**

- Norberak jaiotzean, haztean eta inguru batean harremanak izatean sortu dugun diskurtsoaren inguruan hausnartzea; horrela ulertuko dugu ezberdin pentsatzen duten beste gazteek nola bizi izan duten prozesu hau.
- Giza Eskubideen ikuspegitik gatazken konponketarako indarkeria gabe erabiltzeko tresnak ezagutu.

### **Datu interesgarriak:**

- Lekua eta datak:
  - Bilboko EGKn (Autonomia kalea): **azaroak 11 (asteartea)**.
  - Vitoria-Gasteizko EGKn (Ramiro Maeztu kalea): **azaroak 18 (asteartea)**.
  - Donostiako EGKn (Andia kalea): **azaroak 25 (asteartea)**.
- Orduategia eta iraupena: 16.00etatik 20.30etara.
- **DOAKOA**. Gainera, formazio lekura joateko bidaiaren gastua ordainduko da, frogagiria erakutsi ondoren.
- Behar izanez gero, saio formatiboan parte-hartzearen ziurtagiria emango da.

### **Nola hartu dezaket parte?**

**18 eta 30 urte** bitarteko adina baduzu, izena emateko epea zabalik dago EGK-ko edozein egoitzara telefonoz deituz, [bakea@egk.org](mailto:bakea@egk.org) helbidera email bat bidaliz edo [formulario](#) hau betez.

**EGK-ko elkarteak:** Saio formatibo hau zuen elkartearen DOAN jaso nahi zuentzat eroso den egun eta orduategian? Bidali email bat [bakea@egk.org](mailto:bakea@egk.org) helbidera eta zehaztuko dugu (azaroaren 28ra arte).